

## HISTORIA-HISTORIA / KULTURA-CULTURA / SIDRA-SAGARDOA

## Bertsolarismo y sidra.

SAGARDOAREN LURRALDEA - 15/10/2013 · 17:00

Sin comentarios



Sagardoaren munduak orohar islada handia izan du eta du euskal kulturari, bai idatzizko formateetan, ikus-entzunezkoetan eta baita ahozkoasunean ere. Artikulu honetan bertsolaritzarekin izan duen erlazioa eta edukien aipamenak aztertzen ahalegindu naiz. Abiapuntua Manuel Lekuona (Oiartzun, 1894 – Oiartzun, 1987) maisuaren *Aozko literatura* liburua izan da[1]. Lekuonak ahozko literaturaren historia egiterakoan sagardotegiek bertsogintzaren zabalkundearen izan zuten garrantzia azpimarratzen du.

Alde batetik, XIX. mendearen bukaeran sagardotegietan antolatzen ziren bertso lehiaketak aipatzen ditu eta jendea sagardotegietara erakartzeko bide bat izan zirela defendatzen du. Sagardogileek bertso lehiaketak antolatzen omen zituzten eta sagardotegien inguruko herrietan bertsoak entzuteria joateko ohitura sortu zela dio. Oiartzungo Zuloaga Errotako Juan Kruz errotariaren adibidea aipatzen du. Lehiaketak antolatzeaz gain, Lekuonak sagardotegien bigarren funtzio bat ere nabarmetzen digu, hain zuzen bertsolaritzaren lehen eskolak izatearena. Adibide moduan Hernanin Udarregi (Aia, 1829 – Udarregi Usurbil, 1895) eta Pello Errotak (Asteasu, 1840 – Asteasu, 1919) egindako bertsoak ditugu[2]:

“Pello Errota  
lagunduko al-digu  
guziyon jabiak;  
berak eman dizkigu  
abilidadiak...  
Asitzera dijuaz  
predikadoriak  
sekula ixtudiatzen  
ibili gabiak

Asiyera eman du  
Pello Errotariyak  
errespuesta orain  
Juan Joxe Uarregiyak  
Batek ainbat deretxo  
daukagu guk biyak;  
gure kolejiyuak  
sagardotegiyak”

Manuel Lekuonarekin batera Antonio Zavalak Auspoa sailean argitaratu zituen lanetan ere ikuspuntu interesgarriak azaltzen zaizkigu. Zavalak alde batetik, sagardotegiak lagun taldetako giroarekin lotzen ditu. *Jan-edanaren bertsoak II* liburuan, Tolosako Timoteo Adurriaga zenaren eskuz idatzitako koadernoko bertsoak jaso zituen. Bertan badira zenbait pasarte Tolosako sagardotegietako lagun giroari buruzkoak[3]:

“Biba tolosar gazte,  
biba gure kuadrilla,  
urte askuan ondo  
konserba dedilla;  
sagardua egiten  
gerade abillak,  
eta edaten gera  
gutziz egokiyak”

Badira ere, Astigarragatik oso hurbil jasotako testigantzak, non Urumea bailarako giroa azaltzerakoan sagardoa ezinbestekoa izaten zen. Horrela jasotzen du Pablo Zubiarrain (Hernani, 1912) “Ernani txikia” izenekoak *la kantatuz bezala* liburuan: “Ni mutil koxkorra nintzala, Urumea ingurua ortan, ia denak bertsotan aritzen ziran, tabernara joan ezker. Afizio izugarria zan. Orduan barrio alaia zen gurea. Gabean, goiz aldera arte sagardotegian kantari. Beste mundu bat, beste sanidade bat, beste gauza bat”[4]

Sagardoari dedikatu zirkion bertsoen artean, sagardotegiak nostalgiaz aipatzen ditu:

“Sagardotegi maitagarriak,

## Sagardoaren Lurraldea



Kale Nagusia 48  
20115 Astigarraga  
t: 00 34 943 550 575  
f: 00 34 943 559 575  
info@sagardoarenlurraldea.com  
www.sagardoarenlurraldea.com

RSS Feed  
Twitter  
Facebook

## Buscar / Bilatu

## Categorías

Azokak-Ferías  
Ekitaldiak-Eventos  
Errezetak-Recetas  
Esperientziak-Experiencias  
Formazioa-Formación  
Gastronomia-Gastronomía  
Historia-Historia  
Kultura-Cultura  
Lehiaketak-Concursos  
Museos-Museoak  
Sagarra-Manzana  
Sagastia-Manzanal  
Sidra-Sagardoa  
Sidrerías-Sagardotegiak  
Turismoa-Turismo

## Post Recientes



Diccionario del manzanal:  
variedades de manzana.



Receta de ensalada de  
manzana.



Año 1908. Congreso  
Pomológico de Saint  
Brieuc (Francia). Memoria  
presentada por el Director  
de la Granja de Fraisoro, D.  
Henri Delaire (Primera  
parte).



Bertsolarismo y sidra.

beti zaituzten goguan,  
zuen barruan neguan antxe  
egoten nintzan zeruan.  
Zar eta gazte danak bildurik  
upeltxoaren onduan,  
bertsolariak ederki daki  
zenbat gozatzen genduan”[5]

Hernani bertoko beste adibide esanguratsu bat Nikolas Lujanbiorena da. Lujanbiotarrak lau senide izan ziren: Juan Jose, Nikolas, Martina eta Anjel. Bi zaharrenak Hernaniko Abillats baserrian jaiok eta Anjel, berriz, Donostiako Basozabal baserrian, Oriamendi eta Astigarraga artean, gaurko golf zelaiaren lurretan. Nikolas, Argentinara joan zen lan bila eta han bizi izan zen ia bizitza osoan. Antonio Zavalak *Iru anai bertsolari: Saiburu'ko Juan Jose, Nikolas eta Anjel Lujanbio* liburuan jaso zituen hiruren bertsoak eta azpimarratzekoak dira Nikolasek Argentinan zegoela sagardoari buruz egindakoak:[6]

Gaztetako kontuak  
dauzkat nik gogotan,  
pentsatzen egoten naiz  
alperrik prankotan;  
len gauza merke bazan  
Gipuzkoa ortan:  
pitxarra sagardua  
amar xentimotan

Bestalde, XIX.mende bukaerako bertsoetan, behin eta berriz sagardoaren kalitate ona, alde onuragarriak aipatzen dira. Adibideen artean Ramon Artola (Tolosa, 1831 – Donostia, 1906) Sagardoaren graziya II liburuan eta Pedro Mari Otaño *Sagarra eta sagardoa* argitalpenarekin ditugu.

Hala ere, Antonio Zavalak idatzitako bildumetan bada sagardoaren kalitate txarra aipatzen duen bertsolari ezezagun bat[7]:

“(…) Enpeñatu da aurten  
aguaderua  
urari altxatutzenez duen gradua;  
galtzeko bildur gabe  
nork bere burua,  
askok edan bear dik  
sagardo klarua”

Oharra: artikulu honetarako oso baliagarri izan zaigu Bertsozale Elkarte Xenpelar Dokumentazio Zentroan <<http://www.bertsozale.com/eu/xenpelar>> lortutako informazioa. Bestalde, Auspoa bilduma digitalizatua eskuragarri dago Euskaltzaindiaren webgunean <<http://www.euskaltzaindia.net/auspoa>>

**Iturria:** Sagardoaren Lurraldea 32 Boletina.

**Egilea:** Arantxa Arzamendi (Udal Liburutegi Nagusia Donostia).

[1] Manuel Lekuona: Aozko literatura. Idazlan guztiak. Kardaberaz bilduma. 1978

[2] Manuel Lekuona: Aozko literatura. Idazlan guztiak. Kardaberaz bilduma. 1978

[2]257. orrialdea

[3] Antonio Zavala: Jan-edanaren bertsoak II. Auspoa 155, 1982. 131. orrialdea.

[4] Pablo Zubiarrain “Ernani txikia”: la kantatuz bezala, Auspoa 190, 1985, 13. orld.

[5] Pablo Zubiarrain “Ernani txikia”: la kantatuz bezala, Auspoa 190, 1985,51. orld.

[6] Antonio Zavala: Iru anai bertsolari: Saiburu'ko Juan Jose, Nikolas eta Angel Lujanbio. Auspoa 73, 1968, 135 orl.

[7] Antonio Zavala, Jan Edanak I, Auspoa 1954, 1982, 81. orrialdea

**Tags:** bertsoak, bertsolarismo, bertsolarotza, bertsos, sagardoa, sagardotegiak

*Anterior post*

La manzana, reina de las frutas.Sagarra, fruten erregina.

*Siguiente post*

Año 1908. Congreso Pomológico de Saint Briec (Francia). Memoria presentada por el Director de la Granja de Fraisoro, D. Henri Delaire (Primera parte). 1908 urtea. Saint Briec-eko Kongresu Pomologikoa (Frantzia). Fraisoroko Zuzendaria D. Henri Delairek aurkezturiko memoria (Lehen zatia).



La manzana, reina de las frutas.

## Comentarios recientes

**Sagardoaren Lurraldea en XIV. “Kirikoketa Besta” en Arizkun, el 2 de noviembre.**

**agandamin en XIV. “Kirikoketa Besta” en Arizkun, el 2 de noviembre.**

**Aritz en XXVIII Sagardo Eguna de Donostia, el 7 de septiembre.**

**Hsedfuloi en Deporte rural del mundo de la sidra en XII Sagar Uzta.**

**David en Sidrería Saizar, nueva fachada e imagen más moderna.**

## Links



Tu comentario / Zure komentarioa

Nombre *requerido*

Email *requerido*

Web

Enviar



- [El territorio de la sidra](#)
- [Qué hacer](#)
- [Comer en sidrería](#)
- [Qué visitar](#)
- [El museo](#)
- [Blog](#)
- [Quiénes somos](#)

**SAGARDOAREN  
LURRALDEA**  
el territorio de la sidra

Kale Nagusia 48  
20115 Astigarraga

t: 00 34 943 550 575  
f: 00 34 943 559 575

info@sagardoarenlurralde.com  
www.sagardoarenlurralde.com  
twitter facebook

© 2012 Consorcio Sagardun. Todos los derechos reservados. · [Términos de uso](#)

